

Naroa Auzmendi Gorostiza

B maila • 2 saria

Naroa Auzmendi Gorostiza naiz, 15 urteko ordiziarra. Orain DBH4. maila amaitzen ari naiz Jakintza ikastolan. Uste dut irakurteak bultzatu ninduela poesiako mundu hau ezagutzera. Idazteak lasaitu egiten nauen moduan, nire sentimenduak askatzeko aukera ere ematen dit. Horrez gain, asko gustatzen zait musika entzutea, kirola egitea eta lagunekin denbora pasatzea. Hori gustia dela eta, espero zuen gustukoa izatea!



IPARRORRATZA

Itsasoko urak iparrorrazari olatu bizi baten norantza eskaintzean,
zerua itsasoarekin elkartzen den marran,
amildegia dago.

Eta zu bi aldiz ez pentsatzera ausartu zinen.

Aurpegi ezagunak identifikatzen zenituen
izar haien artean.

Bide hura argiz beteta egon arren,
zu noraezean galdua.

Ilargi hotz eta hil hark hegoak eman zizkizun.

Hegan egiteko.

Errealitatetik ihes egiteko aukera eman zizuten.

Zu norabiderik gabe.

Eta zu, ezjakintasunean murgildu zinen

bide berriak ezagutu nahian,

Iparrorrazaren bila.

Amildegitik behera erortzean,

hegan egin zenuen.

Emandako hegal haiekin,

hegal haiekin.

Zure bidea aurkitu zenuen.
Zure norantza berreskuratu zenuen.
Zu konturatu gabe,
berriz galduta.

Ohartu zinen, behingoz.
Ohartu zinen iparrorratz hura galduta zenuela
noraizean.